



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Saila: OBRAK ETA ZERBITZUAK

Espediente zk.: 15-3996

Amorebieta-Etxanoko Udala

Auzotaxiari buruzko ordenantza

2016ko apirilaren 29an egindako Ohiko Osoko Bilkuran Udalbatzak behin betiko onartu zuen Amorebieta-Etxanoko auzotaxi zerbitzua erabiltzeagatik diru-laguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantza. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70.2 art.an xedatutakoa betetzeko. Aipatu Legearen 65.2 art.an adierazitako epean indarrean sartuko da.

AMOREBIETA-ETXANON AUZOTAXI ZERBITZUA ERABILTZEAGATIK DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANRZA

ZIOEN AZALPENA

Amorebieta-Etxanoko Udalak lurralde oreka eta mugikortasun jasangarria indartzeko apustua berretsi du. Auzotaxiak herriko auzoetan erroldatuta dauden herritarrak hiri-gunera gerturatuko ditu prezio murriztuan, hain zuzen ere osasun-zentroa, udala, banketxeak edota dendak bezalako zerbitzuak dauden lekura.

Lehenengoa. Diru-laguntzaren xedea

Oinarri-arautzaile hauen xedea da Auzotaxi zerbitzuaren erabileraren bidez horrela eskatzen duten Amorebieta-Etxanoko herritarren joan-etorri gastuak diruz laguntzeko dagokion deialdian zehaztuko diren aurrekontu kredituen kontura diru-laguntzak ematea.

Bigarrena. Baldintza orokorrak

Edozein kasutan eta dagokion deialdian zehaztutakoez gain:

1. Onuradunak

-Diru-laguntza eskatu ahal izango dute ordenantza honen I. Eranskineko planoan adierazitako eremu geografikotik kanpo bizi eta erroldatuta daudenek, 18 urte baino gehiago badituzte. Adingabeek, 16 eta 18 urte artean badituzte, gurasoen baimena edota dagokion tutorearena izan beharko dute izena emateko eta sinatutako baimena eta arduradunaren NANren kopia



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

aurkeztu behar dituzte. Herrian erroldatuta daudenen ezkontideak, Orue eta Gure Etxea I eta II egoitzetan daudenak eta euren ibilgailurik ez dutenak, zerbitzu hau erabili ahal izango dute, egoitzan daudela alde zurretik egiaztatuta beharko dutelarik.

-Era berean, udal betebeharrak, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean izan beharko dituzte eskaria egiterakoan eta baita diru-laguntza eskuratzen den bitartean.

-Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. art.ak ezarritakoak betetzen dituztenak ezin izango dira onuradun izan.

-Udalaren erregistroetan dagoen informazioaren gainean ez da dokumenturik aurkeztu behar.

-Diru-laguntza ematen den epean aldaketarik egongo balitz, Udalari jakinarazi beharko zaio.

2. Diruz lagundu daitezkeen epea

Urtariletik abendura arteko epea izango da, abuztua bazter utzita.

3. Joan-etorrien baldintzak eta auzotaxi zerbitzua erabiltzeko arauak

-Auzotaxi zerbitzua astelehenetik ostiralera eskainiko da goizeko zazpi eta erdietatik (07:30) arratsaldeko zazpiak arte (19:00) urte osoan zehar, abuztuan izan ezik. Jai-egunetan ez da zerbitzurik emango.

-Bidaiak erreserbatzeko taxien telefonogunera deitu daiteke edota zuzenean taxilariekin harremanetan jar daiteke.

-Zerbitzua erabiltzaileak eskatu beharko du bezperako arratsaldeko zazpiak (19:00) baino lehen. Aldez aurretik abisatu gabe ere zerbitzua eska daiteke baina kasu honetan, adjudikaziodunak ahal izan behar du. Ondorioz, alde zurretik abisatu gabe zerbitzua eskatzen denean, ezin da zerbitzu hori bermatu.

-Eremu berdineko erabiltzaile bat baino gehiagok zerbitzua eskatzen dutenean, ibilgailua partekatu ahal izango da. Partekatzeari dagokionez, ibilgailuak baimenduta dituen jesarleku kopurua izango da muga. Ibilgailuaren jesarleku guztiak bete beharko dira ibilbide eta ordutegi bera duten zerbitzuak eskatzen direnean.

-Zerbitzua zolatuta dauden bideetan eskainiko da.

4. Ondokoak dira onuradunen betebeharrak:



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

-Joan-etorrien baldintzak eta auzotaxi zerbitzua erabiltzeko arauak bete.

-Udalak egin beharreko egiaztapenak ahalbideratu eta eskatzen den informazio guztia eman.

Hirugarrena. Diru-laguntzak ematea

Diru-laguntzak emateko ohiko prozedura ondokoa izango da:
Auzotaxi zerbitzuaren erabiltzaileei zuzenean ematea.

Joan-etorri bakoitzaren zenbatekoa 12 eurokoa izango da eta Udalak diruz lagunduko duen zenbatekoa ondokoa izango da:

- 10 € joan-etorri bakoitzeko, joan-etorri kopurua 0-50 artekoa denean.
- 6 € joan-etorri bakoitzeko, joan-etorri kopurua 51-100 artekoa denean.
- 4 € joan-etorri bakoitzeko, joan-etorri kopurua 101-150 artekoa denean.

Gehienez ere erabiltzaile bakoitzak urtean 150 joan-etorri egin ditzake.

Laugarrena.- Eskariak aurkezteko epea eta lekua

1. Eskariak Udaletxean aurkeztu beharko dira, horretarako prestatutako ereduak erabiliz. Ereduak erakundean bertan eta honen web orrian eskuratu daitezke. Deialdi bakoitzean eskatzen zaizkion agiri osagarriak erantsi beharko ditu.

Agiri ofiziala eskatzaileak sinatu beharko du.

2. Diru-laguntza eskuratzeko eskaria aurkezteak oinarri hauetan ezarritakoa berariaz eta modu formalean onartzea dakar.
3. Eskariak aurkezteko epea urtero deialdian ezarritakoa izango da.
4. Eskariarekin batera ondoko agiriak aurkeztu beharko dira:

-Deialdi honi erantsitako eskabide ereduak beteta.

-Eskatzailea identifikatu ahal izateko agiria, edota, hala badagokio, haren izenean jardun denarena (aurretiaz aurkeztu ez badu).

-Aitorpen arduratsua aipatuz udal betebeharrak, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean daudela. (Eskaera ereduak).

-Aitorpen arduratsua esanez eskatzaileak deialdiak jarritako baldintzak betetzen dituela. (Eskaera ereduak).



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

-Aitorpen arduratsua aipatuz ez duela Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. art.ak jartzen dituen galarazpen arrazoirik. (Eskaera ereduan).

-Bestelako agiri osagarriak ere eskatu ahal izango dira.

5. Aurkeztutako eskariekin batera ez badira beharrezko agiriak erantsi edota emandako informazioa ez bada nahiko, eskatzaileari 10 egun balioduneko epean dagokion agiriak bidaltzeko eskatuko zaio. Jadanik eskatutako epean agiriak bidaliko ez balitu, eskarian atzera egiten duela ulertuko da eta diru-laguntza ukatuko zaio.
6. Jakinarazpenetarako, Udalak eskarian agertzen den helbidea erabiliko du. Eskatzaileari dagokio egon daitekeen edozein aldaketaren berri ematea, batez ere eskatzailearen helbideari dagokionean.
7. Interesdunari jakinaraziko zaion eskaria onartu ondoren, Udalak eskatzaileari alta emango dio auzotaxiaren erabiltzaileen erregistroan eta erabiltzaileak auzotaxi txartela eskuratu ahal izango du. Txartel hori bakoitzarena eta besterezina izango da eta, edozein kasutan, taxi zerbitzua erabiltzeko akreditazio gisa erabiliko da.

Bosgarrena. Ebazpena eta diru-laguntzak ordaintzea

Diru-laguntza hau gauzatuko da auzotaxiaren erabiltzaileei diru-laguntza emanaz beraien joan-etorri pertsonaletarako. Hau kudeatzeko taxilariekin hitzarmen bat egingo da. Horretarako, ondorengo **erabiltzeko arau orokorrak** ezartzen dira:

1. Erabiltzailea auzotaxiaren erabiltzaileen erregistroan izena emanda egon behar da eta auzotaxi txartela eskuratu. Izen emate hori eskaria onartu ondoren egingo da eta baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren. Izen-ematea urtero berriztatu beharko da, eskari-orria betez.
2. Taxi zerbitzua gauzatzerakoan, erabiltzaileak bere erabiltzaile txartela erakutsiko du identifikatzeko eta taxilariari bonu bat emango dio (aldez aurretik Udaletxean eskuratuko duena) egiten duen bidaia bakoitzeko.
3. Erabiltzaileak bonuak udaletxean eskuratuko ditu. Bonu bakoitza 10 bidaiarako izango da. Kostua ondokoa izango da:
 - Joan-etorri kopurua 0-50 artekoa denean, 10 bidaia egiteko: 20 euroko bonua.
 - Joan-etorri kopurua 51-100 artekoa denean, 10 bidaia egiteko: 60 euroko bonua.
 - Joan-etorri kopurua 101-150 artekoa denean, 10 bidaia egiteko: 80 euroko bonua.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

4. Gehienez ere erabiltzaile bakoitzak urteko 150 joan-etorritarako bonuak eskuratu ahal izango ditu.
Erabiltzaile bakoitzak ezin izango du aldi berean bono bat baino gehiago eskuratu eta azkeneko bonoa erosi zuenetik hurrengoa erosi arte gutxienez astebete igaro beharko da.
5. Udalak bidaiaren kostua taxilariari ordainduko dio, taxilariarekin izenpetutako hitzarmenaren arabera. Kopuru hori eta erabiltzaileak jasotzen duen diru-laguntza berdina dira hirugarren baldintzan ezarritakoaren arabera (taxilariari ordaintzen zaio endosu-hartzaile bezala, aipatu hitzarmenaren arabera) eta zenbatekoa Udalarari ordainduko zaio bono gisa.
6. Bono-taxiak bakoitzarenak eta besterezinak dira. Erabiltzaileak ezin izango du bonorik eskuratu Udalarekin zorrik izanez gero.
7. Bonu bakoitzak bidaia baterako balio du eta taxilariak jasoko du aurkeztu eta ordaindu dakion.
8. Taxilariak erregistroak behar bezala beteta izango dituzte, bonuen egiaztagiriekin, zerbitzuaren data eta ordua adieraziz eta baita erabiltzailea eta helmuga ere.
9. Urte horretan eskuratutako bonuek abenduaren 31ra arte balioko dute eta ez badira erabili, ezin izango dira itzuli.

Seigarrena. Kontsignazioa

- 1) Deialdian zehaztuko da diru-laguntzetarako gehieneko kopurua eta ze aurrekontu partidari dagozkion.
- 2) Aurrekontuaren ekitaldiaren barruan emandako laguntza guztien bolumenak ez du gaindituko aipatu kontsignazioa edota aurrekontu aldaketak onartuko balira, eguneratzearen ondorioz egin dena.
- 3) Laguntzak 10 joan-etorritarako bonua erosterakoan emango dira. Diru-laguntza eman arren, taxilariak gero justifikatu egin beharko du eta 2. puntuan adierazitako aurrekontu mugak kontuan izango dira.

Zazpigarrena. Beste laguntza batzuekin ematea

Oinarri hauetan araututako diru-laguntza xede bera duten beste Administrazio Publiko batzuen laguntzekin bateragarria izango da, betiere diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez bada.

Zortzigarrena. Itzultzea



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Erakunde onuradunak oinarri hauetan ezarritako ezein baldintza zein aplikatu daitekeen gainontzeko araudia beteko ez balu, diru-laguntza eskuratzeko eskubidea guztiz edo zati batean galtzea ekarriko luke eta osorik edo zati batean dagozkion berandutza interesak itzultzeko betebeharra izango luke. Erabakia diru-laguntzak emateko organo eskudunari dagokio.

Bederatzigarrena. Araubide juridikoa

Diru-laguntzak oinarri hauetan ezarritakoaz gain, Amorebieta-Etxanoko Udaleko Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrean ezarritakoaren arabera arautuko dira eta baita azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako erregelamenduaren arabera.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

I. ERANSKINA:

Oharra: Mugatuta agertzen den gunean erroldatuta daudenek ezin izango dute zerbitzua erabili.



Amorebieta-Etxanon, 2016ko maiatzaren 30ean

ALKATEA

Sin.: Andoni Agirrebeitia Abendibar,